

## Liberalismoa

### 4.1. Sarrera

Liberalismoa da NHen pentsamenduaren bigarren tradizio nagusia. Errealismoa bezala, diziplinaren *mainstream* arrazionalistan sartuta dago. Hala ere, korronte hau errealismoaren hautabide modura formulatu da, desberdinak baitira biek dituzten ikuspegi filosofikoak, ideologikoak eta normatiboak, eta ez datozelako bat funtsezkoak diren gai batzuetan: munduaren ikuskera, estatuen arteko harremanak, segurtasuna eta bakea, lan-kidetzeta eta gatazka, etab. Izan ere, errealismoak munduan gatazka izateko etengabe dagoen arriskua nabarmentzen du, eta liberalismoak, berriz, estatuak era baketsuan elkarlanean aritzeko eta elkarrekin bizitzeko dauden aukerak azpimarratzen ditu. Era horretan, liberalismoak ekarpen progresista eta normatiboa egin du diziplinan, eragin politiko handia izan duena.

NHen joera liberala XVIII. mendearen amaieran sortu zen pentsamendu liberalaren parte da, gizarte-zientzia guztietan azaltzen dena. Gure diziplinan, liberalismoak garrantzi handiagoa edo txikiagoa izan du aldi historikoaren arabera, eta aldi horietan aldaera liberal desberdinak agertu dira.

Lehenengo aldaera liberala *idealismoa* izan zen, Lehen eta Bigarren Mundu Gerren artean formulatu eta NHen diziplina sortu zuen aldaera. Lehen esan bezala, diziplinaren historiaren konbentziosko azalpenaren arabera, 30eko hamarkadaren amaiera eta 40ko hamarkadaren hasiera arteko ingurune asaldatuan<sup>67</sup> *lehen eztabaida handia* izan zen diziplinaren

<sup>67</sup> Eztabaida honi buruz, ikus, adibidez, atal hau: «Idealismo realismo» in ARENAL, Celestino del (1990), *Introducción a las Relaciones...*, *op. cit.*, 109.-111. or.

baitan, eta ustez Bigarren Mundu Gerraren bukaeran amaitu zen, errealismoa nagusitzearekin batera. Hala ere, berez ez zen eztabaida teorikorik izan; kontua da, inguruabar historikoen ondorioz, hau da, gerraren ondorioz, liberalismoaren oinarri bakezaleak ezin izan zirela ezarri, eta errealismoak *de facto* hartu zuela diziplina horren tokia.

Era horretan, Bigarren Mundu Gerra amaitu ondoko bi hamarkadetan, errealismoak diziplina osoa monopolizatu zuen ia. Alabaina, 70eko hamarkadan, joera liberala berriz azaldu zen, *globalismo* edo *transnazionalismo* izeneko ikuskera sortzeaz bat. Gero, 80ko hamarkadan, ikuspegi liberal hori aldatu eta *neoliberalismo* izeneko sortu zuen, eta hori neorealismora hurbildu zen elkarren artean izandako solasaldiaren bidez. Nahasmenik ez sortzeko, ondo zehaztu behar dugu NHetan *neoliberalismo* terminoak esanahi berezia duela, desberdina dela ekonomian edo zientzia politikoan eman ohi zaienetik. Izan ere, bi zientzia horien arabera, politika publikoak murriztuz eta zerbitzu sozialak pribatizatuz, estatua gutxienera mugatu eta merkatu librearen alde egiten duen ideologia da. Neoliberalismo kontzeptuaren bi formulazioek sustrai filosofiko berberak dituzte, baina, NHen arloan, beste dimentsio bat adierazten du, nazioarteko gizarteko parte-hartzaile guztien arteko harremanena.

(Neo)liberalismoak indar handia hartu zuen Gerra Hotzaren amaieran, bloke sozialistaren kolapsoa aurrez ez ikusteagatik eta nazioarteko ingurune berria ondo ez azaltzeagatik errealismoak kritika ugari jaso zituen garaian. Aitzitik, liberalismoak gaitasun handiagoa zuen gero eta garrantzitsuagoak ziren gertakariak eta prozesuak aztertzeko, adibidez, nazioarteko lankidetzaren bideratzen duten Nazio Batuen eta beste nazioarteko erakunde batzuen zeregin gero eta nabarmenagoa, globalizazio ekonomikoa edo erregimen demokratikoen zabalkuntza munduan zehar.

NHen joera liberala oso emankorra izan da. Alde batetik, aipatutako neoliberalismoa sortzeaz gain —neorealismoarekin batera, gaur egun nagusi diren bi ikuspegi handietatik bat dena—, garrantzi txikiagoa duten beste ikuspegi batzuk ere sorrarazi ditu; esate baterako, kosmopolitismo liberala<sup>68</sup>. Beste alde batetik, bere ikuspuntu ideologikoen eragina izan dute NHen esparru teoriko eta ikergai askotan; adibidez: bakerako ikerkuntzan, herrialdeen arteko integrazio-prozesuen ikasketan, nazioarteko gizartean norbanakoak duen garrantzia azpimarratzen duten ikuspegietan, esate baterako, haien eskubide zibiko-politikoak gehiago balioetsiz (estatuko auzizat hartu ordez, nazioarteko auzi gisa hartuta), edo *giza segurtasun* kon-

<sup>68</sup> Kanten ikuskerak oinarri hartuta, kosmopolitismo liberalak adierazten du gizateriak komunitate unibertsal bakarra eratzen duela, eta, hortaz, mugaz gaindi, loturak eta bete-behar moralak daudela beste estatu batzuetako herritarrekiko. Beraz, nazioarteko instituzioek eskubideen berdintasuna bermatu beharko lukete mundu osoan.

tzeptuaren formulazioan (estatuen segurtasuna izan beharrean, pertsonen segurtasuna izatea).

#### 4.2. Liberalismoaren sustrai intelektualak eta oinarritzko printzipioak

Pentsamendu liberalak —oro har, NHena barne hartuta— XVIII. eta XIX. mendeetan ditu sustraiak, bai eta lehenago ere.

Izan ere, John Locke izan zen inspiratzaile nagusietako bat (Ingalaterra, 1632-1704), absolutismo politikoari eta horrek oinarritzat zuen boterearen sorrera jainkotiarren ideiarri aurre egin zion filosofoa. Lockeren iritziz, pertsonak askeak eta berdinak dira berez, eta *lege moral natural* bat dute, haien jokabideari mugak ezartzen dizkiona eta elkarbizitzara behar-tzatzeko debekua, etab.). Aldi berean, pertsonak eskubide natural batzuk dituzte, berezkoak eta estatua eratu baino lehenagokoak (bizitza, askatasuna, zoriontasuna, jabetza pribatua, etab.). Norbanakoen eskubide eta askatasun horiek babesteko eta era baketsuan haietaz gozatzeko xedez, pertsonak estatuetan antolatzen dira, estatuek funtsezko zeregin hori baitute. Estatua itun edo *gizarte-hitzarmen* baten bidez sortzen da, eta, horri jarraiki, norbanakoen uko egiten diote beren askatasunaren zati bati, segurtasun handiagoz gozatu ahal izateko. Hortaz, estatuek herri-subiranotasuna, legearen errespetua eta giza eskubideen errespetua hartu behar dituzte oinarri. Hartu ezean, gizarte-hitzarmena hautsiko da, eta bidezkoa izango da beste antolakuntza politiko bat bilatzea. Ideia horiek guztiak lagungarriak izan dira erregimen demokratikoen oinarri teorikoak ezartzeko.

XVIII. mendeko Ilustrazioko egile batzuk ere oso garrantzitsuak dira; adibidez, Montesquieu, Rousseau edo Voltaire. Gehienbat Immanuel Kant nabarmentzen da (Prusia, 1724-1804), 1795eko *Bake iraunkorraz* lanarekin, egiazko plan bat baita bakea eraikitzeko<sup>69</sup>. Abiaburu gisa, aditzera ematen du barneko mailan eta nazioartean betebeharrak bat dagoela moralki jarduteko. Barneko mailan, gobernu-eredu errepublikanoa eskatzen du, eredu horretan gobernariak legearen mende egon behar baitute eta baketsuagoa izaten baita beste estatu batzuekin. Kanpoan, eta hor egin zuen ekarpen nagusia, betebeharrak morala dago nazioarteko harreman baketsuak eta legezkoak eratzeko, gerra-garaian eta araurik ez dagoenean pertsonak ezin baitute erabili ez eskubiderik ez askatasunik. Azken batean, Kanten bake-planak zera proposatzen zuen: estatuetan eredu errepublikanoa hartzea, nazioarteko zuzenbidea garatzea (estatuen jokaera eta horien

<sup>69</sup> KANT, Immanuel (1996 [1795]), *Sobre la Paz Perpetua*, Tecnos, Madril.

arteko harremanak zuzentzen dituzten arauak) eta estatu askeen federazio bat eratzea, segurtasun kolektiboko sistema moduko zerbait osatzeko. Denboran barrena, formulazio horiek funtsezko erreferenteak izan dira pentsamendu liberalean, eta pizgarria izan dira segurtasun kolektiboa sustatzen duten erakundeak sortzeko eta nazioarteko lankidetzaz bultzatzeko, esate baterako, Nazioen Liga (Nazioen Elkarte ere deitua), Lehen Mundu Gerraren ondoren<sup>70</sup>.

Tradizio liberalaren funtsezko beste sustrai bat Adam Smithen pentsamendu ekonomikoa eta merkataritza askeari buruz zuen doktrina dira, XIX. mendekoak. Doktrina horren arabera, merkaturako ekonomia duten estatuek nahiago izaten dute bakea: merkatu librearen aberastasun gehiago ematen die estatuei gerrak baino, elkarrekiko onurak sortzen ditu, eta horiek, gatazka piztu beharrean, lankidetzaz baketsua bultzatzen dute. XX. mendean, ideia horiek erabili ziren nazioarteko merkataritza askea aldeztzeko, hazkunde, bake eta lankidetzazko mundu mailako ordena izateko eskakizun gisa. Planteamendu horiek aurki ditzakegu egungo *bake liberal* izeneko ikuspegiaren azpian, horren arabera, globalizazioa eta horrek dakarren merkatu askearen zabalkuntza lagungarriak baitira mundu osoan lotura baketsuak eta egonkortasuna sortzeko.

Liberalismoaren korrante teorikoa Ilustrazioaren eta Modernitatearen oinarriak da, eta gizakia, arrazoituz, aurrerapen materiala eta morala —bakea, demokrazia eta justizia lortzea barne hartuta— etengabe bultzatzen duela sinesmena eta baikortasuna ditu ezaugarri<sup>71</sup>.

Baikortasun antropologikoa da planteamendu horren abiaburua, hau da, gizakia berez ona dela eta elkarlanean eta bakean bizitzeko joera duen ideia. Horrela, errealismoak ez bezala, liberalismoak uste du gerra ez daxeke giza kondizioari; eta jarrera egoistak eta oldarkorrak sustatzen dituzten egoeren, erakundearen eta gizarte-egitura desegokien emaitza dela. Hortaz, egitura horiek gaindituz eta nazioarteko gizartearen berriz antolatuz gero, gerra nolabait arindu edo saihestu daiteke.

Bigarren ideia aurrerapenean duen fedea da, aurrerapen zientifiko-teknologikoan eta, era berean, aurrerapen sozialean eta politikoan. Aurrerapenak, pertsonen ongizatea eta zioriontasuna ekartzeaz gain, hobekuntzak egingo ditu estatuaren eta nazioarteko gizartearen antolakuntzako formetan. Hala, bada, nazioarteko gizartearen aldatu behar da, nola arlo instituzio-

<sup>70</sup> NAVARI, Cornelia (2008), «Liberalism», in WILLIAMS, Paul D. (arg.), *Security Studies: An Introduction*, Routledge, Londres, 31.-32. or.

<sup>71</sup> Liberalismoaren oinarri teorikoei buruz, ikus: GRASA, Rafael (2015), «Neoliberalismo e institucionalismo. La reconstrucción del liberalismo como teoría sistémica internacional», in ARENAL, Celestino del eta José Antonio SANAHUJA (koord.), *Teorías de las Relaciones Internacionales*, Tecnos, Madril, 102.-103. or.

nalean, hala oinarrien eta balioen arloan, hain anarkikoa eta gatazkatsua ez izateko, laguntzaile, bidezko eta baketsuagoa izateko.

Iritzi publikoak eta intelektualek bultzada eman diezaiokete nazioarteko gizartearen aurrerapenari. Ildo horretan, NHetako ikertzaileek gaitasuna eta erantzukizuna edukiko lituzkete, beren lanarekin balioak eta nazioarteko errealitatea bera alda daitezzen sustatzeko eta eratzeko.

### 4.3. Idealismoa

Idealismoa oinarri liberalak nazioarteko gaietan aplikatu nahi zuen joera izan zen, NHetako liberalismoak izan zuen lehen aldaera. Horrez gain, diziplina hori sorrarazi zuen, Lehen Mundu Gerra amaitu ondoren<sup>72</sup>. Egia esan, lehen aipatu bezala, *idealismo* izena errealismoak eman zion geroago, hain zuzen Carrek, gutxiespen zentzuaz, eta, beraz, egokiago litza-teke *internazionalismo liberal* esatea.

Oinarri liberal batzuk Lehen Mundu Gerra hasi aurretik zeuden, hainbat egile liberalek nazioarteko errealitateaz egindako azterketetan. Hala ere, idealismoa Lehen Mundu Gerra amaitu ondoren azaldu zen, Europako eta AEBko jendearen eta elite politiko eta intelektualen artean oinarri liberalak indartu zirelako. Woodrow Wilson presidente iparramerikarra erabakigarria izan zen, idealismoaren jaiotza babestu baitzuen, XIX. mendeko liberalismoan oso inspiratuta, eta hainbat proposamen eta xede zerrrendatu baitzituen 1918an egindako bere *Hamalau puntuko diskurtso* ospetsuan.

Idealismoak alderdi batzuk batera zituen errealismoarekin; adibidez, beren munduaren ikuskeran estatua dela parte-hartzaile nagusia eta boterea azterketaren ardatza. Alabaina, ikuskera desberdinak zituzten giza naturari eta nazioarteko arazoan konponbideari buruz, eta, beraz, alderdi desberdinei ematen zieten lehentasuna: errealismoa gatazkaren inguruan zebilen; idealismoak, berriz, nazioarteko lankidetzan nabarmentzen zuen.

Idealismoak hainbat korrante hartzen zituen barnean, baina, oro har, oinarritzko hiru dimentsio zituen: a) *analitikoa*, gerren arrazoiak aztertzen ardaztua; b) *preskriptiboa*, gerrak saihesteko eta mundu baketsua lortzeko proposamenak zituen agenda batekin; eta, azkenik, c) *normatiboa*, nazioarteko harremanak nolakoak *ziren* aztertzeaz gain, *nolakoak izan behar zuten* lantzen baitzuen, zein oinarrik eta arau juridikok arautu behar zituzten.

<sup>72</sup> Idealismoaren gaian sakontzeko, hau ikus daiteke: ARENAL, Celestino del (1990), *Introducción a las Relaciones...*, op. cit., zehazki «Idealismo versus realismo» atala, 109. or. eta hurrengoak.

Izan ere, idealismoaren helburu nagusia gerren arrazoiak zientifikoki aztertzea zen, gehienbat Lehen Mundu Gerrarenak: inperialismo europarra, demokratikoak ez ziren erregimenen militarismoa, estatuen arteko botere-orekaren estrategia, aliantza militarren politika, ezkutuko diplomazia (beste herrialde batzuen asmoei zegokienez, mesfidantza sortzen zuten ezkutuko akordioekin), herrien autodeterminazio-eskubidearen urraketa, etab. Era horretan, bitartekoak identifikatu nahi ziren, berriz ez errepikatzeko, eta bidezkoa eta baketsua izango zen nazioarteko ordena eraikitzeko. Haien iritziz, gainera, hori sortzen ari zen, bidea urratzen ari zen pixkanaka.

Azterketa hutsetatik harantz joz, idealismoak hainbat proposamen egin zituen nazioarteko egitura erreformatu, eta mundu baketsu eta bidezkoago bat lortzeko. Idealismoak batez ere esaten zuen nazioartean aginte nagusi bat behar zela, herrialdeen barruan bezala, arau juridikoak ezarri, eta eztabaidetan konponbide baketsuak bermatzeko. Bestela esanda, garrantzi handia ematen zion nazioarteko eskubidea eta nazioarteko erakundeak garatzeari. Nazioarteko erakunde bat sortzea proposatu zuen bereziki, segurtasuneko eta nazioarteko lankidetzako sistema kolektibo bat ezar zezan, horren bidez, egonkortasuna sustatzeko. 1919an gauzatu zen, Nazioen Liga sortu zenean. Gainera, honelakoak sustatzea proposatu zuen: nazioarteko lankidetzak, armagabetzeko eta armak kontrolatzeko neurriak, diplomazia irekia eta gardena, eta eztabaidak era baketsuan konpontzeko tresnak. Idealismoaren iritziz, erregimen demokratikoak zabal-tzea, nazioarteko interdependentzia ekonomikoa, harreman sozial transnatzionalak, eta ezagutza zientifiko-teknologikoaren aurrerapena lagungarriak izango ziren bakea eta nazioarteko lankidetzak sendotzeko<sup>73</sup>.

Neurri horiekin batera, hainbat oinarri eta balio aldeztu zituen, herrialdeen arteko harremanak arautu behar zituztelako bakearen alde egiteko: autodeterminazio nazionalaren printzipioa, sinesmen ilustratua giza aurrerapean, eta, batez ere, zuzenbidean oinarritutako prozedura demokratikoak herrialdeen arteko eztabaidak konpontzeko. Beraz, erregimen liberal demokratikoen oinarriak nazioarteko esparrura eramanez nahi zituen. Era berean, ikuspegi normatibo edo etikotik, NHerako ikastunek nazioarteko ordena berri hori sustatzeko zuten konpromiso moralean sinesten zuten, ezjakintasuna, aurreiritziak eta interes maltzurak gaintzeko egin zezaketek ekarpenaren bidez. Hala, bada, idealismoak diziplina sortu zuen, «nazioarteko harremanak aztertzea bakea bultzatzea bezala ikusten zelako»<sup>74</sup>.

Idealismoari onartu egin behar zaio Nazioarteko Harremanak diziplina autonomo gisa sortzeko meritua. Hala ere, ahalegin gutxi egin zuen di-

<sup>73</sup> BROWN, Chris eta Kirsten AINLEY (2005), *Nazioarteko Harremanak zer diren*, *op. cit.*, 21. or.

<sup>74</sup> *Ibidem*, 21. or.

ziplina metodologia zientifiko batez hornitzeko, aztergaia zehazteko eta kontzeptu aldetik zegoen nahasmena gainditzeko. Hain zuzen, akats horiek kritikatu zizkion errealismoak.

Bigarren Mundu Gerraren hasierak eta ondoren abiarazitako Gerra Hotzak —hau da, mundu mailako konfrontazioak eta segurtasunik ezak— idealismoaren porrota ekarri zuten. Bigarren Mundu Gerraren ondoko hamarkadetan, errealismoa nagusitu zen, eta nazioarteko lankidetzan eta nazioarteko zuzenbidean oinarrituta zeuden postulatu liberalak nabarmen ahuldu ziren (hala ere, eragina izan zuten, adibidez, Nazio Batuen sorreran). Tradizio liberala ez zen berriz azaldu 1960ko eta 1970eko hamarkadak iritsi arte, eta aldaera berri batekin egin zuen: globalismoarekin.

#### 4.4. Globalismoa edo transnazionalismoa

Esan bezala, 1960ko hamarkadaren amaieran eta 1970eko hamarkadaren hasieran, joera berria sortu zen, globalismo edo transnazionalismo izenekoa, pentsamendu liberalaren tradizioan txertatuta, errealismoak diziplinan zuten monopolioari aurre egin nahian<sup>75</sup>. Hori gertatu zenean, ingurune historikoan, *distentsioa* zen nagusi; hau da, bi blokeen arteko etsaitasun politiko eta militar gutxiago, eta, era berean, interkonexio ekonomiko globalen goraldia eta petrolioaren krisia gailentzen ziren. Ingurune berri horren ondorioz, nazioarteko politikaren ardatza ez ziren soilik segurtasunari lotutako auziak, arreta handiagoa jarri baitzieten auzi ekonomikoek eta sozialei. Aldaketa hori gure diziplinan ere islatu zen, *high politics* edo *goi-mailako politikako* arazoen (segurtasunekoek, geopolitikoek, diplomatikoek) monopolioa galdu, eta gero eta garrantzi handiagoa hartu baitzuten *low politics* edo *behe-mailako politikako* arazoen (ekonomikoek, sozialek, ingurumenekoek, eta abarrek).

Robert Keohane eta Joseph Nye dira globalismoaren edo transnazionalismoaren bultzatzaile nagusietako bi, diziplina sortu zuten bi obraren egileak: *Transnational Relations and World Politics* (1973) eta *Power and Interdependence* (1977)<sup>76</sup>. Lan horiek munduari buruzko ikuspegi berria eskaintzen dute, munduan izandako aldaketak antzematen dituen eta hainbat parte-hartzaileen arteko harreman *transnazional* askotan oi-

<sup>75</sup> Ikusiko dugunez, une hartan beste korrante teoriko bat azaldu zen, *estrukturalismo* izenekoa, pentsamendu marxistaren tradizioari lotuta. Bi korrante berri horien (globalismoaren eta estrukturalismoaren) eta errealismoaren arteko eztabaidak eratzen du diziplinan *birugarren eztabaida* edo *eztabaida interparadigmatiko* deitu dena.

<sup>76</sup> KEHOANE, Robert O. eta Joseph NYE (arg.) (1973), *Transnational Relations and World Politics*, Harvard University Press, Cambridge; eta KEHOANE, Robert O. eta Joseph NYE (arg.) (1977), *World Politics in Transition*, Little Brown, Boston.

narritzen den ikuspegia. Liburu horietatik bigarrenak, gainera, eredu berria eskaintzen du mundua azaltzeko: *interdependentzia konplexua*. Eredu horrek oinarrizko hiru agindu ditu: hainbat lotura daude gizartearen artean (hala estatuarenak nola estatuarenak ez direnak), indarra ez da nazioarteko harremanen ardatza, eta goi-mailako politikako auziak ez dira nagusi nazioarteko agendan. Izan ere, interdependentzia konplexuak esan nahi du garrantzia eman behar zaiela hainbat gertaera eta kontzepturi, hala nola, interdependentzia ekonomikoari, nazioarteko erakundeei eta *nazioarteko erregimen* izenekoei (aurrerago ikusiko ditugu).

Hortaz, globalismoak nazioarteko harremanez duen ikuspegia argi eta garbi ez da errealismoarena bezalakoa, eta, neurri handi batean, harekiko oposizioan definitzen da. Errealismoari egiten dizkion kritika nagusiak elementu hauen ingurukoak dira:

- a) Estatu zentrismoa. Errealismoari egiten zaion kritika nagusia da, oker jokatzuz, nazioarteko parte-hartzaile ia bakartzat hartzen duela estatua eta, horren ondorioz, ez duela gaitasunik gero eta konplexuagoa den nazioarteko errealitatea azaltzeko. Aitzitik, globalismoak, estatuak duen zeregin nagusia onartu arren, beste parte-hartzaile batzuk daudela uste du, gero eta gehiago eta gero eta garrantzitsuagoak direnak (nazioarteko erakundeak, enpresa transnazionalak, erakunde pribatuak, norbanakoak, etab.).
- b) Nazioarteko harremanen izaera gatazkatsua. Globalismoaren iritziz, hein handi batean, lankidetzat da nazioarteko harremanen bereizgarria, eta estatuaren eta beste parte-hartzaile batzuen artean dauden interdependentzia transnazionalako lotura ugariaren emaitza da lankidetzat. Izan ere, lotura eta zirkulu zentrokide ugari dituen armiarma-sare baten gisa irudikatzen dute mundua, eta lotura eta zirkulu horietako bakoitza beharrezkoa da multzo osoa ondo lotuta egon dadin. *Interdependentziako lotura* horien ondorioz, estatuak elkarrizketan eta lankidetzan aritzen dira, eta zenbat eta estu eta iraunkorragoak izan, orduan eta laguntza handiagoa emango dute tentsioak baretu eta gerrak gainditzeko. Ondorioz, transnazionalismoak edo globalismoak hautsi egiten du nazionala eta internazionala banatzen dituen zatiketa zorrotza, munduaz duen ikuspegiaren arabera, gero eta interdependentzia eta lankidetzako lotura gehiago baitaude arlo guztietan, eta, horren ondorioz, gero eta nabariagoa baita «mundu mailako gizarte» eratzen ari dela<sup>77</sup>.

<sup>77</sup> Kritika horien aurrean, errealismoak erantzuten zuen estatu guztien arteko interdependentzia globala mito bat zela, estatuaren artean oso gaitasun eta botere desberdinak zeudela ezkutatzeko erabilitako mitoa. Ildo horretan, Kenneth Waltz (neo)realistaren us-



- c) Botere eta interes nazionalak, erabakigarriak nazioarteko harremanetan. Globalismoaren ustez, nazioarteko harremanak oso konplexuak dira, eta beste irizpide eta motibazio batzuei erantzuten diete. Bestalde, gaineratzen du errealismoak botereaz duen ikuspegia oso sinplista dela, indarkeriarekin eta hertsadurarekin lotzen duelako, eta ez duelako aintzat hartzen boterea erabiltzeko beste modu batzuk daudela, adostasunean oinarritutakoak barne.
- d) Errealismoaren dogmatismo teorikoaren ondorioz, zail zaio alderdi hauek ulertzea eta azaltzea: 1) Nazioarteko harremanen konplexutasuna, estatuen arteko borrokan oinarritutako ikuskera politiko estuaren ondorioz; eta 2) nazioarteko harremanetan izan diren aldaketak, haiez egiten duen interpretazioa giza izaeraz duen ikuskeraren ondoriozkoa delako, eta, giza izaera aldaezina denez, nazioarteko sistema ere horrelakoa dela pentsatu ohi delako.
- e) *Goi-mailako politikako* gaien monopolioa (auzi militarrek eta diplomatikoak). Aitzitik, globalistak gai sorta zabal batera daude irekita, lehen *behe-mailako politikatzat* jotzen ziren gaitara (ekonomia, ingurumena, giza eskubideak, komunikazioak, ideologiak, lotura kulturalak, etab.). Hau da, parte-hartzaile desberdinen artean loturak sor ditzakeen guztia aztertzen dute, jakinik lotura horiek segurtasuna eta bakea sendotzen dituztela.
- f) Errealismoaren kontserbadurismo politikoa. Globalisten ustez, joera hori oztupoa da lankidetzako harremanetarako, eta eutsi egin nahi dio Estatu Batuei mesede egiten dien *status quoari*.

Aldi batez eztabaida izan zen globalismoaren eta errealismoaren artean, eta haietako bakoitzak bere hizkuntza erabiltzen zuen, eta bere argudioak aldeztu eta bestearenak arbuiatzen zituen, oinarri faltsuak zirelakoan. Munduari buruzko ikuskera jakin bat zuen bakoitzak, eta errealtatearen zati jakin bat hartzen zuen ardatz, besteak baino azaltzeko gaitasun handiagoa zuena. Hala ere, ikusiko dugunez, elkarren arteko konfrontazio hori nabarmen arindu zen gero.

---

tez, interdependentzia kontzeptua «mito» bat da, «nazioarteko politikako errealtateak iluntzen baititu, eta, aldi berean, sinesmen faltsu bat adierazten baitu bakea susta dezaketenez baldintzei buruz». WALTZ, Kenneth (1982), «The Myth of National Interdependence», in Maghroori, Ray eta Bennett Ramberg (arg.) (1982), *Globalism versus Realism: International Relations' Third Debate*, Westview Press, Boulder (AEB), 93. or. Bestetik, aurrerago ikusiko dugunez, ikuspegi estrukturalistek ere zalantzan jartzen zuten interdependentziaren ikuskera hori, eta aditzera ematen zuten dauden harremanak mendekotasunean oinarritzen direla, herrialde aberatsek herrialde pobreak esplotatzeko eta mendeantzeko prozesuetan.

#### 4.5. Neoliberalismoa

1970eko hamarkadan globalismoan edo transnazionalismoan kokatzen ziren egile asko beren oinarriak birformulatzen hasi ziren pixkanaka 1980ko hamarkadan, eta horren ondorioa neoliberalismoa izan zen. Aldaketa horrek bide eman zuen errealismora hurbiltzeko<sup>78</sup>, eta errealismoak, lehen ikusi dugunez, Waltzek bultzatutako birformulazioa egin zuenaldi berean. Hortaz, elkarrekiko hurbilketaren ondorioz, 80ko eta batez ere 90eko hamarkadetan, elkarrizketa teoriko garrantzitsua izan zen neorealismoaren eta neoliberalismoaren artean, azken hamarkadetan diziplinan izan den eztabaida nagusietako bat hain zuzen ere<sup>79</sup>.

Robert Keohane izan zen postulatu liberalak birformulatzeko eta errealismora hurbiltzeko prozesuaren bultzatzaile nagusia, 1977an *Power and Interdependence* liburu aipatua Joseph Nyerekin argitara eman ondoren. Horrela jaio zen Keohanek (*neo*)liberalismo instituzional izendatu zuena, *neoliberalismo* ere deitua<sup>80</sup>.

Keohaneren ustez, errealismoak nazioarteko alderdi batzuk azal dituzake, baina beste batzuk ez (hain zuzen, estatuen arteko lankidetzak). Horregatik, helburua ez da errealismoaren alternatiba izango den paradigma bat sortzea, baizik eta osatzea, horrek ezin azal dezakeena azaltzeko. Hala, bada, neoliberalismoak pentsamenduaren bi tradizioen premisak uztartzen ditu: liberalismokoak eta errealismokoak.

- a) Alde batetik, (neo)errealismotik onartzen du nazioarteko sistema anarkikoa dela, eta estatuak direla parte-hartzaile nagusiak, baina ez bakarrak; era berean, estatuek arrazoizko eran jarduten dutela, boterea lortzeko eta beren interesak babesteko.
- b) Bestetik, liberalismotik bi ideia hartzen ditu: estatuen artean nazioarteko lankidetzak posiblea dela, eta nazioarteko instituzioak eta arauak garrantzitsuak direla.

Lankidetzaz darabilen argudioak, beraz, premisa errealistak eta filosofia liberala uztartzen ditu. Hau da, onartzen du estatuak parte-hartzaile egoistak eta arrazionalak direla, baina, hain zuzen horregatik, lankidetzara jotzen dutela, lankidetzak onurak ematen dizkielako.

<sup>78</sup> Hala ere, egile batzuek ez zuten bide hori hartu, eta ikuspegi transnazionalista gartzen tematu ziren, errealismoaren erabat bestelakoa zelakoan.

<sup>79</sup> Eztabaida horren edukia hemen dago aztertuta: BARBÉ, Esther eta Juan Pablo SORIANO (2015), «Del debate neorealismo-neoliberalismo a la (re)construcción del discurso dominante en Relaciones Internacionales», in ARENAL, Celestino del eta José Antonio SANAHUJA (koord.), *Teorías de las Relaciones Internacionales*, Tecnos, Madril, 127.-156. or.

<sup>80</sup> Neoliberalismoaz, ikus hau: GRASA, Rafael (2015), «Neoliberalismo e institucionalismo...», *op. cit.*, 97.-125. or.

Nolanahi ere, neoliberalismoaren eta neorrealismoaren arteko hurbil-keta egon arren, hainbat desberdintasun daude bi joeren artean, eta izan dituzten eztabaida nagusiak desberdintasun horien ingurukoak izan dira.

- a) Lehenengo desberdintasuna da nazioarteko sistemaren anarkiak (edo aginte zentralizatu bat ez egoteak) estatuen jokabidean duen eragina. Neorrealisten ustez, anarkia da estatuen jokabidearen faktore erabakigarri nagusia, eta behartu egiten ditu egoismoz jokatzen eta beren biziraupena eta segurtasuna lehenestera, helburu ekonomikoak bigarren planoan utzita. Aitzitik, neoliberalismo instituzionalaren iritziz, anarkia ez da hain erabakigarria, ez eta hain negatiboa ere estatuen jarduerari begira, jarduera hori ez baitago biziraupena eta segurtasuna lortzeko helburuaren azpian, baizik eta beste helburu askok ere badutela eragina, hala nola, ongizate ekonomikoak.
- b) Bigarren desberdintasuna, eta bi joeren arteko eztabaidagai nagusia, izan da nazioarteko lankidetzaren garrantzia eta horren onuren ingurukoak. Neorrealisten ustez, estatuak nohizbehinka baizik ez dute lankidetzaren erabiltzen, eta beren interesak babesteko eta botere militarra eta ekonomikoa handitzeko egiten dute. Estatuak lankidetzaren aritzeko interesa erakusten du, horrek botere erlatiboa (hau da, beste estatu bati baino botere gehiago) ekartzen badiotz bakarrik. Are gehiago, lankidetzaren nolabaiteko mesfidantza ikusten da, beste estatuak guk baino irabazi erlatibo gehiago lortuz gero, epe luzean mehatxagarri izan baitaiteke gure segurtasunerako. Era berean, lankidetzaren beste herrialde batzuekiko interdependentzia gehiegi sortzen badu, ahultasun eta segurtasun gabezia gehiago eragin litzake. Aitzitik, neoliberalen ustez, beldur horiek arrazoi gabekoak dira, lankidetzaren bidez elkarrekiko irabaziak lortzeko desira gailentzen baita estatuetan. Hortaz, haien ustez, lankidetzaren posiblea da, eta tresna egokia da bakea, ongizatea eta justizia sustatzeko.
- c) Hirugarren eztabaidagaia nazioarteko instituzioen eta *nazioarteko erregimen* izeneko (beherago aztertuko ditugu) zereginari dagokio. Izan ere, neoliberalen ustez, nazioarteko lankidetzaren tresna erabakigarriak dira, eta, beraz, estatuen jardura egoista gutxitzen dute, konfiantza sortzen dute haien artean, lagungarriak dira egonkortasun globalerako, eta, azken batean, nazioarteko sistemaren anarkia arintzen dute<sup>81</sup>. Neorrealistek hein batean onartzen dituzte zeregin horiek, baina askoz ere garrantzi txikiagoa ematen diete.

<sup>81</sup> KEOHANE, Robert O. (1984), *After Hegemony: Cooperation and Discord in the World Political Economy*, Princeton University Press, Princeton (AEB); eta AXELROD, Robert (1984), *The Evolution of Cooperation*, Basic Books, New York (AEB).

Nazioarteko instituzio eta erregimen horiek dira neoliberalen ikergai nagusietako bat: horregatik, Keohanek *instituzionalismo (neo)liberal* izen-datua zuen bere ikuspegia. Dena dela, zehaztu behar da instituzioak oso mota desberdinetakoak izan daitezkeela. Keohaneren definizioaren arabera, instituzioak «arau formal eta informal egonkor eta interkonektatuen multzo bat dira, zeinek jokabideak preskribatzen, jarduerak murrizten eta itxaropenak taxutzen baitituzte». Hiru motatakoak izan daitezke: a) gobernuaren erakundeak eta gobernu kanpokoak, argi ezarrita eta arau esplizituekin; b) «nazioarteko erregimenak», gobernuak adostutako arau esplizituekin baina instituzioek baino instituzionalizazio-maila baxuagoarekin; eta c) hitzarmenak edo akordioak, parte-hartzaileen itxaropenak betetzen dituzten arau esplizituekin<sup>82</sup>.

Azkenik, gorago esan bezala, neoliberalismoaren iritziz, estatuek lankidetzara jotzen dute, parte-hartzaile egoistak izan arren, arrazionalak ere badirelako, eta, hargatik, badakitelako lankidetzak onurak ekarriko dizkiela denei. Nazioarteko lankidetzak ekartzen dituen onurak argudiatzeko, neoliberalak ere eta azalpen teoriko desberdinak eman dituzte, adibidez, honetan oinarrituta:

- a) *Jokoaren teoria*, edo ekonomian eta beste arlo batzuetan erabakiak hartzeko prozesuak azaltzeko lagungarriak diren ereduak. *Atxilotuaren dilema* nabarmentzen da bereziki. Horren arabera, jokalariek jokabide egoistak dituztenean, berchalako onurak lor ditzakete, baina elkarrekiko lankidetzak baizik ez die bermatzen etorkizunean onurak izatea. Beste horrenbeste gertatuko litzateke nazioarteko harremanetan.
- b) *Teoria ekonomikoa*, batez ere zera adierazten duten azalpen batzuk: merkatua koordinatzen eta arautzen duen instituziorik ez dagoenean, merkatuak akatsak ditu eta horiek parte-hartzaileen onurak murriztu eta ondasun publikoak sortzea galarazten dutela. Nazioarteko sistema anarkikoa merkatu akastun batekin pareka liteke, eta, beraz, lankidetzara ere behar du, elkarrekiko onurak lortzeko.

Lehen esan bezala, 80ko eta, batez ere, 90eko hamarkadatik aurrera neoliberalismoaren eta neorealismoaren artean izan den elkarrizketaren ondorioz, berriz formulatu behar izan dira, eta, horri esker, jarrerak malgutu, elkarrengana hurbildu, eta antzekotasunak sendotu dituzte. Era horretan, 80ko hamarkadatik, biek eratzen dute diziplinaren *mainstream* edo korrante nagusia. Arrazionalismoa eta positibismoa da bien ezaugarria (hau da, froga enpirikoetan oinarritutako metodo zientifikoa erabiltzea),

<sup>82</sup> KEOHANE, Robert O. (1989), *International Institutions and State Power. Essays in International Relations Theory*, Westview Press, Boulder (AEB), 2.-4. or.

eta joera pospositibistek, aurrerago ikusiko dugunez, kritikatu egiten dituzte horiek. Nolanahi ere, lehen esan bezala, bi pentsamendu-ildoak hurbil egon arren, desberdintasun batzuk daude haien artean<sup>83</sup>.

Tradizioz diziplinan (neo)realismoa nagusitu dela kontuan izanik, neoliberalismoak egindako kritikak eta ekarpenak erabakigarriak izan dira diziplinaren azterketa-eremua aberasteko. Neoliberalen ekarpen horiei dagokienez, hauek aipatu behar dira:

- a) Arlo epistemologikoan, laguntza eman dute diziplinak ideiei (arauei, oinarriari, eta abarri) garrantzi handiagoa eman diezaien; eta ideia horien bidez, hainbat gertakari azal daitezke, adibidez, nazioarteko lankidetzak. Aitzitik, neorealismoak faktore materialen azterketa du ardatz (horiek zehazten baitute boterearen banaketa nazioarteko sisteman). Geroago ikusiko dugunez, ikuspegi pospositibistek ideiei emandako garrantzi hori hartu eta handiagotu egin dute.
- b) Arlo ontologikoan, diziplinak aztertzen duen gaiaren eremua zabaldu dute, soilik segurtasunean ardaztu beharrean, beste gai asko hartzen baitituzte aintzat; besteak beste: nazioarteko lankidetzak eremu desberdinetan; nazioarteko ekonomia, nazioarteko erakundearen zeregina (batez ere, Nazio Batuenak), nazioarteko zuzenbidearen garapena eta giza eskubideen sustapena, globalizazioak estatutu subiranoko botereengan duen eragina, eta segurtasunaren alderdi berri batzuk, hala nola, armagabetzeko prozesuak edo demokraziaren eta bakearen arteko harremana.

#### 4.6. Nazioarteko erregimenak

Neorealismoarekin izandako elkarrizketan neoliberalismoak egindako ekarpen teoriko nagusietako bat 70eko hamarkadan eta 80ko hamarkadaren hasieran «nazioarteko erregimen»en kontzeptuaz egin zuen formulazioa da. Gaur egun, zabal erabiltzen da kontzeptu hori diziplinan, arlo eta arazo ugaritan, herrialdeen artean dauden lankidetzako eta koordinazioko mekanismoak azaltzeko<sup>84</sup>.

<sup>83</sup> Horri dagokionez, ikus GRASA, Rafael (1997), «La reestructuración de la teoría de las Relaciones Internacionales en la posguerra fría: el “realismo” y el desafío del liberalismo institucional», in Hainbat egile, *Cursos de Derecho internacional de Vitoria-Gasteiz 1995*, Tecnos-Euskal Herriko Unibertsitatea, Madril, 103.-147. or.

<sup>84</sup> Nazioarteko erregimenen ekarpen teorikoaz, ikus: RUGGIE, John Gerard (2009), «Epistemología, ontología y el estudio de los regímenes internacionales», in *Relaciones Internacionales*, 12. zk., UAM, 171.-191. or.

Gehien onartutako definizioa Steven Krasner-ek egin zuen 1982an. Horren arabera, zera da erregimen bat: «printzipio, arau, agindu eta erabaki-hartzeen prozedura inplizitu edo esplizitu sorta bat, zeinaren inguruan bat egiten baitute parte-hartzaileen itxaropenek nazioarteko harremanen eremu jakin batean»<sup>85</sup>. Bestela esanda, nazioarteko parte-hartzaileen jokabidea arautzen duten joko-arauak dira, eta instituzionalizazio-maila desberdinak dituzte. Izan ere, batzuetan, izaera formala dute, eta entitate juridikoa duen nazioarteko erakunde batean gauzatzen dira; baina, beste batzuetan, estatuen artean lankidetzan aritzen diren forma egonkorak dira, baina ez daude ez juridikoki ez instituzionalki formalizatuta: gai edo arazo bati buruz oinarri orientatzaileak, jokatzeko oinarritzko arauak, helburuak edo prozedurak besterik ez dira. Azken batean, erregimenak formalak edo informalak, juridikoak edo politiko hutsak izan daitezke.

Nazioarteko erregimenak estatuek beren jokabideak koordinatzeko duten beharrianaren ondorioa dira, eta lagungarriak dira haien arteko bizikidetzak baketsua izan dadin. Hala, bada, Bigarren Mundu Gerra bukatu zenetik hona, nabarmen egin dute gora. Erregimenek eremu geografiko zehatzak *har ditzakete barnean, edo nazioarteko gizarteko parte-hartzaile* edota estatu multzo jakin batzuk, ardatz gisa hartzen dituzten arloen arabera. Gainera, estatuek ez, baizik eta parte-hartzaile pribatuek sortutako erregimen transnazional asko daude, esate baterako, aseguru, banku edo garraioko enpresak.

Izan ere, ia nazioarteko harremanen esparru guztietan daude erregimenak; adibidez: segurtasuna (Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluan oinarritutako segurtasun kolektiboko sistema; arma nuklearrak ez ugaritzeari buruzko erregimena), merkataritza (Munduko Merkataritza Erakundearen oinarritutako nazioarteko merkataritzaren erregimena), ingurumena (ozono-geruza babesteko nazioarteko erregimena edo Kyotoko Protokoloa), giza eskubideak (Giza Eskubideen Europako Hitzarmena bezalako itunak), nazioarteko finantza-sistema (Bretton Woodsen sistema, Nazioarteko Diru Funtsa eta Munduko Bankua barne hartuta), jabetza intelektuala (Babes Intelektualerako Munduko Erakundea, patenteak eta egile-eskubideak zaintzen dituenak), telekomunikazioak, aireko nabigazioa, etab.

Bestetik, erregimenek izaera desberdinak dituzte. Batzuk *deklaraziozko erregimenak* dira, estatuek gai bati buruz egindako deklarazio huts bat baitute oinarri, benetako betebeharririk gabe (Garapen Iraunko-

<sup>85</sup> KRASNER, Steven (1983), *International Regimes*, Cornell University Press, Ithaca, 2. or. (Aurrez 1982an argitaratua, *International Organization* aldizkariaren ale berezi gisa, 36. lib.).

rrerako Helburuak). Beste erregimen batzuek, berriz, baliabide materialen ekarpena eskatzen dute helburu zehatz batzuetarako (Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea, ELGA). Batzuk *inposizio-erregimenak* dira, tresna politikoak eta juridikoak ezartzen baitituzte estatuen arteko akordioen urraketak kontrolatzeko eta zehapenak ezartzeko (Segurtasun Kontseiluko segurtasun kolektiboko sistema). *Integrazio-erregimenak* ere badaude, nazioz gaindiko erakundeak ezartzen dituztelako eta estatuek beren subiranotasunaren zati bat utzi behar baitiete (adibidez, Europako Banku Zentralak kudeatzen duen euroaren diru-erregimena, etab.).

Nazioarteko erregimenak lagungarriak dira nazioarteko lankidetzarako, hainbat eragin onuragarri dituztelako: a) parte-hartzaileek gainerakoen baliabideei eta asmoei buruz duten informazioaren kantitatea eta kalitatea handitzen dituzte, eta horrek gardentasuna hobetzen, ziurgabetasuna gutxitzen eta lankidetzeta errazten du; b) jarraibideak ezartzen dituzte elkarlaneko jokabidetzat hartzen denari buruz, eta horrek erabakiak hartzeko era mugatzen eta orientatzen du; c) parte-hartzaileen jokabidearen elkarrekiko zaintzako mekanismoak sortzen dituzte, bai eta akordioak ez betetzecagatik zigorrokoak ere; d) negoziazioak eta ondorengo akordioak ezartzea errazten dute gai zehatzenei buruz. Ikusten denez, estatu subiranoek sortzen eta iraunarazten dituzte erregimenak, baina, behin ezarrita daudela, eragin handia dute estatuengan; haien jokabidea baldintzatzen dute.

Egile neoliberalen ustez, estatuek —aktore arrazionalak eta egoistak direnez— nazioarteko erregimenak ezarri eta iraunarazi nahi dituzte, beren interesak betetzeko tresna direlako<sup>86</sup>. Interes horri dagokionez, alde batetik, lehen aipatutako onurak daude, eta, bestetik, erregimena hausteak izango lituzkeen kostuak (ospea galtzea, etorkizuneko akordioetarako oztopoa, isunak, etab.).

Nazioarteko erregimenen kontzeptuaren ekarpenetako bat da lagungarria dela parte-hartzaileen jokabidea eta nazioarteko lankidetzeta azaltzeko, ideietan (arauetan, printzipioetan, eta abarretan) oinarrituta, ez soilik faktore materialen arabera (boterearen banaketa-sisteman), neorealismoak egiten duen bezala. Ekarpene horrek funtsezko desberdintasuna ezartzen du neorealismoarekin alderatuta, eta erabakigarria izan da diziplinaren azterketa-cremua zabaltzeko.

<sup>86</sup> AXELROD, Robert eta Robert KEOHANE (1993), «Achieving Cooperation under Anarchy: Strategies and Institutions», in BALDWIN, David (arg.), *Neorealism and Neoliberalism. The Contemporary Debate*, Columbia University Press, New York, 97. or.

Hala ere, erregimenen ikuspegi neoliberalak ere hainbat kritika jaso ditu<sup>87</sup>:

- a) Ia estatuen arteko lankidetzeta baizik ez du aztertzen, baina beste parte-hartzaile batzuek gero eta pisu handiagoa dute nazioarteko gizartean.
- b) Nolabaiteko izaera kontserbadorea du, erregimenak onuragarritzat hartzen baititu *per se*, ezartzen duten erregulazioa zein den eta, batez ere, azpian zein botere-harreman dagoen aztertu gabe. Azken batean, erregimen batzuek desberdintasun ekonomiko eta politiko handiak dituen nazioarteko ordenari eusten diote, eta, hala ere, ez du hori zalantzan jartzen.
- c) Erregimen askok defizit demokratiko nabaria dute, nazioarteko burokratek eta teknokratek kudeatzen baitituzte, eta gardentasun gutxiz adierazten baitituzte horien ikuspegiak, gobernuek edo herriarrek kontrol demokratiko gutxi izanda.
- d) Alderdi sektorial zehatzetan ardazten dira, eta, beraz, nazioarteko gizarte konplexuaz ematen dituzten azalpenak partzialak dira. Horiek horrela, beste kontzeptu bat formulatu eta indartu da, *governantza globala* (*global governance*), osatuago dagoen eta generikoagoa den kontzeptua, gizateria osoaren gaiak mundu mailan arautzeko eta kudeatzeko mekanismoen multzoari dagokiona, eta barnean hainbat elementu hartzen dituena (partekatutako oinarriak, arauak eta legeak, nazioarteko erakundeak, gizarte zibileko parte-hartzaileak, etab.) (honetaz, ikus 2.1.3 atala).

#### 4.7. Bake liberala eta bake demokratikoa

80ko hamarkadan, hausnarketa garrantzitsu bat sortu zen pentsamendu neoliberalaren esparruan, demokrazia liberalaren eta nazioarteko bakearen arteko harremanaz, eta batez ere Gerra Hotza bukatu ondoren hartu zuen indarra. Hausnarketa bake demokratikoaren teorian eta bake liberalaren teorian gauzatu zen. Lehen teoria eredu politikoari dagokio, eta bigarrena, berriz, eredu ekonomikoari.

*Bake demokratikoaren* tesiaren arabera, eredu politiko demokratikoak dituzten herrialdeek ez dute beren artean gerra egiten, baina, batzuetan, demokratikoak ez diren herrialdeen aurka egiten dute. Ikuspegi horren sustraiak Kanten *bake irauunkorraren* ideian daude, horren arabera, erregi-

<sup>87</sup> Kritika asko honek egin dizkio: STRANGE, Susan (2009), «Cave! Hic dragones: una crítica del análisis de regimenes», in *Relaciones Internacionales*, 12. zk., GERI-UAM, 125.-143. or.



men errepublikanoak (hau da, demokratikoak) baketsuagoak baitira. Tesia Michael Doyle-k proposatu zuen lehenengoz 1983an. 1816tik izandako gerrei buruzko azterketa enpiriko batean oinarritu, eta herrialde demokratikoez beren artean gerrarik egin ez dutela ikusi zuen. Ondorioz, esan zuen «bake bereizia» ezarri dutela haien artean, gainerako herrialdeen aurrez aurre, horiekin oldarkorrek izan badaitezke ere<sup>88</sup>. Estatu demokratikoak zergatik izan ohi diren baketsuagoak jakiteko, instituzio liberalen ezaugarriak hartu behar dira kontuan (herriaren babesa, botere-banaketa, kontrolerako mekanismoak), horiek zuhur jokatzera eramaten baitituzte, edo gatazkak konpontzeko elkarrizketa eta konpromisoa bultzatzen dituen kultura liberala partekatzen dutelako<sup>89</sup>.

Horren antzera, *bake liberalaren tesiari* jarraiki, merkatu askeko ekonomia duten herrialdeek harreman baketsuak izaten dituzte haien artean. Ideia horren sorburua XIX. mendeko merkataritza aske liberalean dago, horren arabera, merkataritzako harreman irekiek bide ematen baitute herrialdeen artean bakea egon dadin, eta sistema ekonomiko protekzionistek, berriz, gatazkak sortu ohi baitituzte. Erabilitako argudioa da merkatu askeko ekonomiak herrialdeen arteko interdependentziak eta partekatutako interesak sortzen dituela, eta hori pizgarria dela herrialde horiek gerra alde batera utz dezaten, denentzat kaltegarria izango litza-tekeelako.

Bi tesiak kritika ugari jaso dituzte. Kritika baten arabera, ez dira estatistikoki egiaztatu, eta ideologia politiko jakin bat izatearen ondoriozko sinemenak baizik ez dira. Beste kritika baten ustez, Gerra Hotzaren garaia izan da herrialde demokratikoen arteko gerrarik izan ez duen aldi bakarra, eta horren arrazoia ez da herrialde horiek berez izatera baketsua dutenik, baizik eta bloke bereko kideak zirela. Are gehiago, izatera baketsu hori zalantzan jartzen dute, Irak bezalako herrialdeetan esku-hartze militarrik egin dituztelako, hain zuzen, demokraziaren izenean<sup>90</sup>.

---

<sup>88</sup> Tesia hemen formulatu zen lehenengo aldiz: DOYLE, Michael (1983), «Kant, Liberal Legacies, and Foreign Affairs. Part I», *Philosophy and Public Affairs*, 12. lib., 3. zk., 205.-235. or.; eta DOYLE, Michael (1983), «Kant, Liberal Legacies, and Foreign Affairs. Part II», *Philosophy and Public Affairs*, 12. lib., 4. zk., 323.-353. or. Egileak geroago garatu zuen gaia, hain zuzen, in DOYLE, Michel W. (1995), «Liberalism and the End of the Coldwar» in LEBOW, Richard N. eta Thomas RISSE-KAPPEN (arg.), *International Relations Theory and the End of the Cold War*, Columbia University Press, New York, 85.-108. or.

<sup>89</sup> Hona hemen ildo honetako ekarpen garrantzitsu bat: RUSSETT, Bruce M. (1993), *Grasping the Democratic Peace. Principles for a Post-Cold War World*, Princeton University Press, Princeton.

<sup>90</sup> Adibide moduan, ikus hau: GEIS, Anna, Lothar BROCK eta Harald MULLER (2006), *Democratic Wars: Looking at the Dark Side of Democratic Peace*, Palgrave Macmillan, Basingstoke (Erresuma Batua).

Bi teoriak oso hurbil daude elkarrengandik, eta oro har *bake liberalaren ikuspegi* edo *agenda* deitu ohi denaren oinarria dira. Esaera horrek lehen aipatutako bi alderdiak hartzen ditu barnean, hala politikoa nola ekonomikoa. Herrialde demokratikoen ereduari jarraiki, ikuspegi horrek proposatzen du gatazkak amaitu ondoren bakea eraikitzeko eta gerra berriak saihesteko modurik onena printzipio liberaletan, eskubide zibiko-politikoetan, demokrazia ordezkatzazilean eta merkatu askeko ekonomian oinarritutako sistemak ezartzea dela. Ikuspegi horrek garrantzi teoriko eta politiko handia hartu du Gerra Hotzaren ondoren, eta Mendebaldeko gobernu emaile askok, Nazio Batuek eta Munduko Bankua bezalako erakundeek hartu dute. Era horretan, Hegoaldeko herrialde askotan gerraren ondoren berreraikitzeko eta bakea eraikitzeko egon diren prozesu gehienen marko ideologikoaren oinarria izan da ikuspegi hori; are gehiago, nazioarteko komunitateak herrialde horietan esku hartu ohi du, izaera liberaleko sistemak ezartzen bultzatzeko.

Hala ere, literatura-kritiko askoren ustez, kanpotik bultzatutako sistema liberal horiek ezartzeak ondorio txarrak izan ditu: estatuak ahuldu, desberdintasun eta ahultasun sozialak handitu, eta, bakea eraiki beharrean, ezegonkortasun politikoa ekarri eta gerra zibilak ugaltu ditu<sup>91</sup>.

#### 4.8. Eskola Ingelesa. Ikuspegi teorikoen arteko zubia

*Eskola Ingelesa* izenekoak<sup>92</sup> epigrafe berezia beharko luke, berezko ezaugarriak eta nortasuna baititu. Hala ere, kapitulu honetan sartu dugu, loturak eta antzekotasunak dituelako neoliberalismoarekin (baina, aurrerago ikusiko dugunez, baita neorealismoarekin ere).

Eskola honek bildu zituen ingelesak ziren edo unibertsitate britainiarrei lotuta zeuden hainbat akademiko. 1950eko hamarkadan sortu zen, Charles Anthony Manning-en eta Martin Wight-en eskutik, eta, gero, Hedley Bull batu zitzairen<sup>93</sup>.

<sup>91</sup> Zalantzan jartzen dutenen artean, hau nabarmentzen da: DUFFIELD, Mark (2004), *Las nuevas guerras en el mundo global. La convergencia entre desarrollo y seguridad*, Los Libros de la Catarata, Madril (1. argit. ingelesez, 2001). Hona hemen oraintsuko azterketa kritiko bat: CAMPBELL, Sussana, David CHANDLER eta Meera SABARATNAM (2011), *A Liberal Peace? The Problems and Practices of Peace building*, Zed Books, Londres.

<sup>92</sup> Eskola Ingelesaren ekarpenen, ahultasunen eta oraintsuko birformulazioen azterketa bat, hemen dago ikusgai: GARCÍA SEGURA, Caterina (2015), «La escuela inglesa y la teoría de la sociedad internacional: propuestas críticas y reformulación», in ARENAL, Celestino del eta José Antonio SANAHÚJA (koord.), *Teorías de las Relaciones Internacionales*, Tecnos, Madril, 2015, 269.-299. or.

<sup>93</sup> Hona hemen eskola horren obra nagusietako bat: BULL, Hedley (1977), *The Anarchical Society. A Study of Order in World Politics*, Macmillan, Londres.

Eskola Ingelesak adierazi du diziplinaren ikergai nagusia *nazioarteko gizarteak* izan behar duela, ez soilik nazioarteko sistemak (elkarri eragiten dioten parte-hartzaileen batura huts batek). Horixe izan da, hain zuzen, eskolaren ekarpen nagusia. Eskolaren ustez, gaur egun *nazioarteko gizarteaz* hitz egin daiteke, estatuek partekatzen dituzten arau eta balio komun batzuk daudelako. Hortaz, bada, zentzu holistikoa hartzen dute nazioarteko gizarte hori, eratzen duten zatien (estatu subiranoen) batura baino handiagoa den multzo gisa. Bestela esanda, bere tesi nagusia da estatuen arteko harremanak ezin direla ondo azaldu nazioarteko gizarte osotasun gisa eratzen duten arauak, ohiturak, balioak eta erakundeak aipatu gabe. Ezinbestean aztertu behar da gizarte horren izaera, eta deszentralizatuta eta zatikatuta dagoen estatu-sistema batean nolabaiteko ordena eta askatasuna emateko duen gaitasuna.

Eskola Ingelesak erreialismoak dituen osagai batzuk ditu, batez ere, bere azterketa batez ere anarkian jarduten duten estatu subiranoetan oinarritzen delako (eta ez gizateria bezalako kategoria unibertsaletan). Hala ere, erreialismoa ez bezala eta neoliberalismoaren antzera, eskolaren ustez, estatuek arauen ingurune batean jarduten dute, eta, denbora gehienean, nahitaezkoztat jotzen dituzte. Hau da, estatuek, elkarrekin erlazionatzen direnean, ez dute *sistema* huts bat eratzen (elkarreragin erregular hutsekin); aitzitik, *gizarte* bat eratzen dute, eta horrek esan nahi du beren funtzionamendurako funtsezkoak diren arauak, instituzioek eta balioek zuzendutako harremanak daudela. Gizarte horretan, estatuek onartzen dute erantzukizun batzuk dituztela gainerako estatuekin, eta, oro har, nazioarteko gizartearekin, eta, hortik, nazioarteko zuzenbidea gauzatzen da. Hortaz, estatuak beren interesen atzetik joaten dira, baina ez dute kosta ahala kosta egiten, horrela eginez gero nazioarteko gizarte arriskuan jarriko luketelako<sup>94</sup>. Laburbilduz, estatuen arteko harremanak oraindik anarkian izan arren, ordena eta lankidetzeta-maila altua da<sup>95</sup>.

Eskolak ekarpen ugari egin ditu, eta ezaugarri interesgarri batzuk ditu; beraz, gero eta gehiago jaso du diziplinako *mainstream* neorrealista eta neoliberalaren arreta. Adibidez:

- a) Arauek, erakundeek eta balioek duten garrantzia, estatuen arteko harremanetako osagai erabakigarri gisa, lagungarria izan da *na-*

<sup>94</sup> Ikusten denez, eskola honen premisak ez dira hobbesiarrak (errealistak), ez utopikoak edo idealistak. Hugo Grocio jurista internazionalistak XVII. mendean hasitako pentsamendu arrazionalistaren tradizioa dute oinarrian, eta horrek nazioarteko gizarte eratzen duten eta gatazkak baretzeko lagungarriak diren arauak eta erakundeak nabarmendu zituen.

<sup>95</sup> BURCHILL, Scott, Andrew LINKLATER, Richard DEVETAK, Jack DONNELLY, Matthew PATERSON, Christian REUS-SMIT eta Jacqui TRUE (2005), *Theories of International Relations*, Palgrave MacMillan, Basingstoke (Erresuma Batua) eta NewYork, 3. argitalpena, 10. or.

*ziaoarteko erregimenen* teoria finkatzeko. Konstruktibismoak ere badu ezaugarri hori (aurrerago ikusiko dugunez), eta, horregatik, azken urteetan korrante horretara hurbildu da.

- b) Ikuspegi historikoa du, eta horrek laguntza ematen dio egungo nazioarteko gizartearen izaera kontingentea (edo dinamikoa) eta bertan dauden aldaketa-prozesuak ulertzeko. Horrekin alderatuta, oso bestelakoak dira neoliberalismoaren eta, batez ere, neorrealismoaren ikuspegi aski estatikoak; izan ere, neorrealismoaren ustez, ezinezkoa da nazioarteko sistemaren funtsa aldatzea.
- c) Zorroztasun zientifikoarekin eta metodo enpirikoarekin duen konpromisoa gorabehera, garrantzia ematen die gai filosofikoei, eta oso izaera normatiboa du. Horiek horrela, diziplinako *mainstream*-ak baino harrera hobea egiten die Teoria Kritikoa eta posestrukturalismoa bezalako joera positibistek egindako proposamenei eta erronka intelektualei (adibidez, gizateriaren emantzipaziorako Teoria Kritikoa egiten duen deiar).

Azken batean, era askotako ekarpen teorikoekin bateragarria denez, batzuen ustez, eskola honek zubi-lana egin dezake korrante arrazionalisten eta positibisten artean<sup>96</sup>.

Dena dela, eskola honek dituen hutsune batzuk ere adierazi dira. Batetik, bere estatuzentrismoa dela-eta, ez duela arlo ekonomikoko auzirik aztertzen, nahiz eta nazioarteko gizartean auzi horiek gero eta garrantzi handiagoa izan. Bestetik, bere ahultasun metodologikoak aipatu dira. Akademiko iparramerikarrek nabarmendu dituzte batez ere, zalantzan jarri dutelako azterketa historikoan oinarritzea, hipotesi egiaztagarrietan oinarritutako errealitatearen azalpenean ardazu behar<sup>97</sup>. Akats horiek eta beste batzuk gainditzeko, 1990eko hamarkadaren amaieratik hona, eraberritzeko eta teorian sakontzeko prozesu garrantzitsua izan da Eskola Ingelesean, eta, horri esker, biziberritu egin du bere garrantzia<sup>98</sup>.

<sup>96</sup> SALOMÓN, Mónica (2002), «La teoría de las Relaciones Internacionales en los albores del siglo XXI: diálogo, disidencia, aproximaciones», *Revista CIDOB d'Afers Internacionals*, 56. zk., 38. or.

<sup>97</sup> GARCÍA SEGURA, Caterina (2015), «La Escuela Inglesa y la teoría...», *op. cit.*, 282.-285. or.

<sup>98</sup> *Ibidem*, 269.-271.